

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2021eko maiatza

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek eta gaualdiek gora egiten jarraitu dute 2021eko maiatzean

Ezein ere egunetan jarduerarik izan ez duten hotel-establezimenduen ehunekoak behera egin du, baina oraindik ere % 24,7koa izan da 2021eko maiatzean

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko maiatzean 119.312 sarrera eta 209.506 gaualdi erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan. Hala, 2021eko apirilarekin alderatuta, susperraldia % 27,1ekoa izan da sarreretan eta % 19,9koa gaualdietan.

COVID19aren pandemiari aurre egiteko 2020ko martxoaren 14an ezarritako alarma-egoeratik aurrera, mugikortasunaren gaineko muga aldakorra izan da. Nolanahi ere, 2020ko maiatza izan zen hartutako neurriek turismo-sektorean eragin handiena izan zuten bigarren hilabetea. Hotel-jarduera osasun arloko eta funtsezko langileetara mugatu zen, eta, beraz, serie gehienak ez ziren argitaratu, sekretu estatistikoa gorde zelako eta kalitate estatistikoko irizpideak zeudelako. Horregatik, ezinezkoa da 2020ko maiatzarekiko urte arteko ezein ere alderaketa egitea. Ondoren, aurreko hilaekin, 2021eko apirilarekin, alderatzen dira kopuruak.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko maiatza

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	2021/04
EUSKAL AE	119.312	27,1	209.506	19,9	1,76	1,86
Estatukoak	91.962	14,0	163.777	11,0	1,78	1,83
Atzeritarrak	27.350	107,1	45.729	68,2	1,67	2,06
ARABA/ÁLAVA	19.931	27,5	35.596	9,9	1,79	2,07
Estatukoak	17.052	24,6	30.724	9,3	1,80	2,05
Atzeritarrak	2.879	48,0	4.872	13,6	1,69	2,20
Vitoria-Gasteiz	14.787	26,6	27.890	14,0	1,89	2,09
BIZKAIA	50.607	26,5	92.731	24,8	1,83	1,86
Estatukoak	41.564	17,9	75.963	20,3	1,83	1,79
Atzeritarrak	9.043	90,9	16.768	50,3	1,85	2,36
Bilbao	32.554	39,9	57.847	42,4	1,78	1,75
GIPUZKOA	48.774	27,7	81.179	19,2	1,66	1,78
Estatukoak	33.346	5,2	57.090	1,3	1,71	1,78
Atzeritarrak	15.428	136,6	24.089	105,2	1,56	1,80
Donostia / San Sebastián	29.129	36,4	48.109	31,7	1,65	1,71

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Araban, 2021eko maiatzean 19.931 sarrera erregistratu dira, eta 35.596 gaualdi, aurreko hilean baino % 27,5 eta % 9,9 gehiago. Bizkaian, 2021eko maiatzean sarrera-kopurua % 26,5 igo da, eta % 24,8 gaualdiena; 50.607 eta 92.731 izan dira orotara, hurrenez hurren. Azkenik, Gipuzkoan,

2021eko maiatzean 48.774 sarrera eta 81.179 gaualdi izan dira; hil arteko igoera % 27,7koa izan da sarreretan eta % 19,2koa gaualdietan.

Atzeritar jatorriko sarrerak sarrera guztien % 22,9 izan dira 2021eko maiatzean; beraz, Estatukoak % 77,1era iritsi dira. Gaualdiei dagokienez, antzekoa da banaketa: % 21,8 atzerrian bizi direnenak eta % 78,2 Estatukoena. Atzerriko jatorriko sarrerak eta gaualdiak nabarmen gehitu dira apirilaren aldean: sarrerak % 107,1 eta gaualdiak % 68,2.

Aldeak daude Lurraldeen artean. Araban, aurreko hilaren aldean, % 48,0 eta % 13,6 igo da atzerrian bizi direnen sarrera- eta gaualdi-kopurua, hurrenez hurren. Sarrerek % 90,9ko igoera izan dute, eta gaualdiak % 50,3koa, Bizkaian. Azkenik, Gipuzkoan gehikuntza nabarmenagoak izan dira aurreko hilaren aldean: % 136,6 atzeritar jatorriko sarreretan eta % 105,2 atzeritar jatorriko gaualdietan.

Euskal AEko batez besteko egonaldia 1,76 egunekoa izan da maiatzean (1,86 egunekoa izan zen apirilean). Batez besteko egonaldia ez da asko aldatzen pertsonen bizilekuaren arabera: 1,67 egun atzeritarren kasuan, eta 1,78 egun Estatuko jatorriko pertsonen kasuan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko maiatza

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/05	p.p.*	2021/05	p.p.*	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	m/m-1 (%)
EUSKAL AE	26,2	2,5	34,0	3,3	68,43	-11,3	23,29	-2,0
ARABA/ÁLAVA	28,1	0,9	37,0	2,6	62,08	-10,2	22,95	-0,8
Vitoria-Gasteiz	30,1	2,9	40,6	4,7	57,02	-15,7	23,16	-1,1
BIZKAIA	24,5	3,0	33,4	4,0	63,16	-12,8	21,09	-0,2
Bilbao	24,6	5,8	32,7	7,1	67,70	-10,7	22,11	2,7
GIPUZKOA	27,5	2,7	33,7	2,7	78,03	-9,9	26,26	-0,7
Donostia / San Sebastián	30,3	5,4	35,0	5,0	93,62	-10,4	32,80	1,4

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

p.p.*= aurreko hilabeteko portzentajezko puntuko aldea

2021eko maiatzean jarduerarik izan duten hotel-establezimenduen okupazio-mailak, plazei zein eskainitako logelei dagokienez, aurreko hilabetekoak baino handiagoak izan dira: plazen okupazio-mailari dagokionez, 2021eko apirilean % 23,6 izatetik maiatzean % 26,2 izatera igaro dira, eta logelen okupazio-mailari dagokionez, % 30,8tik % 34,0ra.

Plazakako okupazio-maila % 28,1ekoa izan da Araban, % 27,5ekoa Gipuzkoan eta % 24,5ekoa Bizkaian. Logelen araberrako okupazioa % 37,0 izan da Araban, % 33,7 Gipuzkoan eta % 33,4 Bizkaian.

Plazakako okupazio-mailarik handiena izan duen hiriburua Donostia izan da (% 30,3), gero oso hurbil Gasteiz kokatu da (% 30,1), eta ondoren Bilbon izan da okupaziorik txikiena (% 24,6). Logelen araberrako okupazio-mailaren bilakaerak antzeko joera erakusten du.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleek beheranzko joera adierazten dute. ADR (eguneko batez besteko tarifa) 68,43 eurokoa izan da maiatzean; apirilean, aldiz, 77,18 eurokoa izan zen. Hortaz, % 11,3 txikiagoa gertatu da maiatzekoa. Beherakada orokorra izan da Lurraldeetan: Gipuzkoan 78,03 eurokoa izan da (93,62 euro Donostian), Bizkaian 63,16 eurokoa (67,70 euro Bilbon) eta Araban 62,08 eurokoa (57,02 euro Gasteizen).

RevPar-ak (Gela eskuragarriko diru-sarrera) % 2,0ko jaitsiera izan du, eta Euskal AEn apirilean 23,77 eurokoa izatetik 2021eko maiatzean 23,29koa izatera igaro da.

Itxita mantendu diren hotel-establezimenduak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	42,7	18,2	16,9	41,3	18,7	18,7	38,8	16,2	14,1	46,0	19,7	18,6
Otsaila	42,2	15,1	16,7	42,1	16,0	21,3	37,2	15,0	13,7	46,0	15,1	17,9
Martxoa	31,6	14,1	10,5	25,0	17,3	14,7	28,9	12,7	8,7	35,2	14,3	10,8
Apirila	28,1	91,0	5,7	23,7	92,0	13,3	22,6	87,7	3,5	33,4	93,2	5,6
Maiatza	24,7	69,6	6,7	22,4	73,3	12,0	20,4	66,1	4,7	28,6	71,3	6,9
Ekaina		39,8	5,9		38,7	9,3		40,0	5,6		39,9	5,2
Uztaila		17,6	5,4		26,7	9,3		18,3	4,7		14,9	4,9
Abustua		14,2	5,1		26,7	9,3		14,0	4,3		11,3	4,6
Iraila		15,5	4,9		28,0	9,3		16,5	4,7		11,7	3,9
Urria		20,2	6,3		29,3	9,3		20,4	5,1		17,9	6,6
Azaroa		38,4	10,6		36,0	9,3		34,3	10,7		42,2	10,8
Abendua		41,1	12,2		36,0	13,3		38,4	11,5		44,4	12,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Hileko egun guztietan itxitako hotel-establezimenduen ehunekoaren bilakaerak agerian uzten du ezen COVID19ari aurre egiteko hartutako murrizketek hotel-sektorean duten eraginak, handia izan arren, hobetzeko joera izaten jarraitzen duela. 2021eko maiatzean, hotel-establezimenduen % 24,7 itxita egon dira hileko egun guztietan, 2021eko apirilean baino ehuneko 3,4 puntu gutxiago. Gipuzkoan establezimenduen % 28,6k ez dute inolako jarduerarik izan 2021eko maiatzean; Araban, % 22,4k; eta, azkenik, Bizkaian, % 20,4k.

Informazio-oharra. Hotelen ETHren estaldura % **95,5ekoa** izan da maiatzean. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62